

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA, INTERIOR Y JUSTICIA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

RELACIONES CIUDADANAS E INSTITUCIONALES

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

POLÍTICAS SOCIALES

DERECHOS SOCIALES

FOMENTO

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL, ADMINISTRACIÓN LOCAL, Y MEDIO AMBIENTE

Pello Pellejero kazetaria, Komunikazio zuzendari nagusi berria

Nafarroako Gobernuak ostiral honetako bilkuran onartu du izendapena

Viernes, 31 de julio de 2015

Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu baten bidez, Pello Pellejero Goñi kazetaria Komunikazio zuzendari nagusi berria izendatu du gaurko bilkuran.

Pello Pellejero Iruñekoa da (1961), ezkondua eta hiru seme-alaben aita. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Informazio Zientzietan lizentziatua. Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) badauka, frantseseko 5. mailara arte egina du Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean, eta haren ingelesa erdi mailakoa da.

Lanbidean 1985ean hasi zen *Deiaren* Iruñeko Egoitzan praktiketako erredaktore gisa, eta harrez gerostik, 1997ra arte, hainbat komunikabidetan

lan edo kolaboratu egin du, hala nola *Navarra Hoy*, *Proyectar Navarra*, *El Periódico de Cataluña*, *Gaur Express*, *Diario de Noticias*, *Egunkaria* eta Espainiako Telebistaren Nafarroako Eskualdeko Zentroan.

1997tik Nafarroako Foru Administrazioiko funtzionarioa da, Komunikazio Zerbitzuan haren lanpostua duelarik, eta bertan aritu da Informazio Teknologia Berrrien Bulegoko buru eta Ikus-entzunezkoen eta Web Atariaren Ataleko buru. 2008an Nafarroako Unibertsitate Publikora joan zen eta 2015era arte Komunikazio Atala zuzendu du.

Web edizioari (photoshop, html, css), sare sozialei eta online marketinari buruzko hainbat ikastaro egin ditu. Asmoz Fundazioaren Kazetaritza Digitalaren online graduondoa egina dauka eta badu esperientzia web kudeaketa korporatiboko plataforma desberdinetan, software librekoak nahiz software jabetunekoak.

Hainbat erakundetako kidea da: Vicente Ferrer Fundazioa, ADONA,



Pello Pellejero, Komunikazio zuzendari nagusi berria.

Euskalerria Irratia eta Eusko Ikaskuntza.